

Elkarrekin Podemos IUk galdera sorta erregistratu du Irungo Udalean, Zaldunborda II izapidetzean sortutako zalantzak direla eta

Udal taldearen helburua da izapidetze honen ibilbidearen irudi osoa lortzea eta espediente honen egoera ezagutzea. Espedientea 2106tik dago irekita.

2022/08/24. Hondarribiko eta Irungo Udalen arteko Bateragarritasun Plana kudeatzeko aginduari buruz, gure Udal Taldeari hainbat zalantzak sortu zaizkio Zaldunborda II. eremuaren izapidetzearen gainean.

Udaleko espedienteak aztertu ondoren, ez dakigu zein den gaiaren egoera, gai hori 2016aren amaieratik irekita baitago. URA Agentziaren txosten baten eta Zaldunbordan egiten ari diren obra batzuei buruzko jakinarazpen baten ondorioz sortu da dena, obra horiek hirigintza-lizentziarik gabe egin zirelako.

Gertaera berretsi bada ere, lizentzia lortzeko administrazio-bidea ahalbidetu zen, dokumentazio gehigarria epe jakin batean aurkeztekotan. Ez dakigu zergatik onartu zen, epea amaituta, nahikoa ez zen dokumentazio gehigarria aurkeztea. Errepideen Departamentuaren eta trenbide eremuaren baimenak beharrezkoak zirela adierazi zuen ebazpenak, Zaldunborda eremuaren kokagunea dela eta. Ez dakigu baimen horiek udaletxean jaso ote diren inoiz.

Ez dakigu Udalak egoeraren berri izan bezain laster benetan egiaztatu ote zuen obrak gelditu zirela. Izan ere, obren eragina jasaten ari zen auzotar baten jakinarazpenagatik izan ez balitz, Udalak ez zukeen jakingo bertan behera utzi behar ziren obrak aurrera jarraitu ezezik ere, handiagotu egin zirela.

Horregatik guztiagatik, gure Taldeak galdera sorta bat erregistratu du Udalean, idatziz erantzuteko. Horrela, izapidetzearen ibilbide osoa izatea espero dugu, alde guztientzat onuragarriena den erabakia hartu ahal izateko.

ERREGISTRATUTAKO GALDERAK IRUNGO UDALETXEAN:

2016ko amaieratik dago jasota Zaldunborda inguruko mugimendua, eta bi espediente daude gai eztabaidagarri horrekin lotuta: 2016DIUR0089 eta 2017INUT0002.

1. Zein da espediente horien egungo egoera?
2. Egiaztatu al zen lizentziarik gabe hasitako obrak gelditu zirela Udalak 2017ko otsailaren 24an ebazpena eman ondoren?
3. Obrak legeztatzeke eskaera aurkezteko epea bete ez zenez, zergatik ez zen formalki atzera bota 2016DIUR0089 espedientea?
4. 2017ko uztailaren 18an, Trenbide-baimenak (ADIF eta ETS entitateetatik) eta errepede-baimenak (Aldunditik) eskatu ziren. Lortu al dira noizbait?
5. 2018ko irailaren 26an, Vicenta Modrego andreak toki horretan hasitako obrek jarraitu zutela jakinarazi zuen. 2017ko uztailaren 18tik, inoiz egiaztatu al zen obrak gelditu zirela?
6. Interesdunei jakinarazi zitzaien egindako obra desegin eta obrak hasi aurreko egoeran utzi behar zutela lursaila, hirigintza-lizentziarik gabe aritu zirelako?
7. Nonbait dago jasota zein den lursail horien egungo egoera al da lursailen egungo egoera eta zein den aurrera eramaten ari den jarduera ekonomikoa? Legezkoa al da?

ESPEDIENTEETATIK ATERATAKO INFORMAZIOA

ZALDUNBORDA II - Kronograma

2016-11-02 – Zaldunbordako lursailean egindako legez kanpoko obraren jakinarazpena jaso zuen Irungo Udalak.

2016-12-23 – Ura Agentziak obra egiteko baimena eman zuen hainbat puntu betetzekotan.

2017-2-16 – Irungo Udalak emandako teknikariaren txostenean, honako hauek eskatzen ziren:

A. Lurren jabeek obrak legeztatze eskaera egin behar zuten, proiektu teknikoarekin batera.

B. Irungo eta Hondarribiko udalen arteko bateragarritze-plana.

C. Obrek ezin zuten lurzatiaren balioa handitu.

D. Errekaren ertzetik 5 metrora dauden plakak kentzea (URAREN txostenaren arabera)

2017-2-24 – Irungo Udalak obrak etetea EBATZI DU, eta hilabeteko epea eman du legeztatze eskaera eta proiektua aurkezteko.

2017-2-24 – Hondarribiko Udaleko Alkatetzak txosten teknikoa jaso zuen, egiten ari diren obren berri izan ondoren, URA Agentziaren bidez.

2017-3-1 – Hondarribiko Udalak obrak gelditzea EBATZI zuen, eta hilabeteko epea eman zuen legeztatze eskaera eta proiektua aurkezteko.

2017-3-9 – Hondarribiko Udalak honako hauek jaso zituen erregistro bidez:

a. Jabeen kontsulta, kamioientzako aparkalekua ezartzeko.

b. Herritar baten idazkia, aldameneko lursail baten jabe izanik, obregatik kaltetu gisa.

2017-3-9 – Irungo Udalak erregistro bidez jaso zuen herritar horren idazkia.

2017-04-21 – Irungo Udalak eta Hondarribiakoak erregistro bidez jaso zuten legeztatze eskaera, kamioientzako aparkaleku bat ezartzeko proiektuarekin batera.

23-6-2017 – El Ayuntamiento de Hondarribia responde a la consulta del 9-3-2017 para el establecimiento del aparcamiento de camiones de forma DESFAVORABLE, pero indicando que se puede legalizar si:

a. Se aprueba un Plan de Compatibilización entre los Ayuntamientos de Irun y Hondarribia.

b. Se obtienen autorizaciones de obra de:

i. ADIF y ETS

ii. URA

iii. Carreteras de la Diputación.

iiii. Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Zibila.

2017-6-15 – Irungo Udalaren txosten teknikoa, non ADIFek, ETSk eta Aldundiaren Errepideen Departamentuak emandako baimenak eskatzen baitira obra gauzatzeko eta Hondarribiko Udalaren jarrera.

2017-06-23 – Hondarribiko Udalak erantzun egin zion 2017-03-09an egindako kontsultari, kamioien aparkalekua jartzearen AURKAKO iritzia emanez, baina adierazi zuen aparkalekua legeztatu zitekeela ondokoak betetzekotan:

a. Irungo eta Hondarribiko Udalen arteko Bateragarritasun Plana onartuz gero.

b. Obra-baimenak lortuz gero:

I. Adif eta ETS entitateetatik

II. URA Agentziatik

III. Aldundiko Errepideen Departamentutik

IV. Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusitik

c. Garapen-plangintzaren barruan, jardueraren eta GI-636 errepidearen zarata-mailak bateragarriak direla adierazten da.

2017-6-26 – Hondarribiko Udalak kamioiak aparkatzeko proiektuari eta legeztatze-eskaerari erantzun zien, eta honako hauek eskatuz:

a. ADIF, ETS entitateek eta Aldundiaren Errepideen departamentuak emandako baimenak.

b. Partzelatzeko, hirigintza-eraldatzea egiteko edo lurzoruaren xedea aldatzeko debekua.

c. Eraikuntzako hondakinen erabileraren eta lekualdaketaren justifikazioa.

d. Hirigintza-arloko arau-hausteengatik zehapen-espeditentea ireki zela jakinarazi zitzaion.

Hilabeteko epea eman zitzaion dokumentazioa aurkezteko edo, bestela, eskaeran atzera egin zuela ulertuko zen.

2017-6-27 – Ekologistak Martxan taldeak obrak gelditzeko eskatu zuen erregistro bidez, baita jabeei zehapenak jartzeko eta hondakinei buruzko informazioa emateko ere.

2017-7-17 – Hirigintza-lizentzia emateko administrazio-prozedura hasitzat ez jotzeko eskatu zuen Irungo Udalaren txosten juridiko batek.

2017-07-18 – Ordezkariek txosten hori berretsi zuen eta ez zuen hasitzat eman prozedura. Gainera, 2017-06-15ean egindako txosten teknikoa erantsi zuen, eta honako hauek eskatu ziren txosten teknikoan:

a. ADIF, ETS entitateek eta Aldundiaren Errepideetako Departamentuak emandako baimenak.

b. Hondarribiko Udalaren jarrera.

2017-07-21 – Irungo Udaleko ordezkariak idazki berarekin erantzun zien bai kaltetutako herritarrari bai Ekologistak Martxan entitateari.

2017-08-23 – Hondarribiko Udaleko ingurumen teknikariak ingurumen txostena sinatu du: **ESP.**

2017TMRS0003

Betelanak eta lurrezko lautadak egiteko materialen izaerari buruzko informazio nahikorik ez dagoela jakinarazi du. Egindako betelana kutsagarria izan daitekeen jardueratzat har daitekeela pentsatzeko zantzuak daudela uste da.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari jakinarazten zaio.

2018-9-26 – Kaltetutako herritarrak erantzun dio Irungo Udalari urtebete pasa ondoren. Tarte horretan obrak ez dira gelditu, eta, gainera, aurrera jarraitzen dute.

2018-10-03 – Irungo Udalak txosten teknikoa eman zuen, gertaera hori berresten zuena.

2018-11-19 – Irungo Udaleko ordezkariak hauek EBATZI ZITUEN:

- a. BERRIRO ERE adierazi zuen ETEN BEHAR ZIRELA OBRAK.
- b. 600 euroko zehapena ezartzea.
- c. Hilabeteko epea, proiektu teknikoarekin batera, obrak legeztatzea eskaera aurkezteko.
- d. Epea obrak legeztatu gabe igarotzen bazen, egindakoa desegin eta lurzatia obrak hasi aurretik zegoen bezala utzi behar zen.

2019-2-18 – Jabeek Bateragarritasun Plana eskatu zioten Irungo Udalari.

2019-5-09 – Irungo Udala

22.000 €-ko zehapena berretsi zaio jabeetako bati (hasierako 27.500 €-ko zehapena, eta %20eko murrizketa aplikatu zitzaion).

2002 ortoargazkia. Ortofoto 2002. Geoeskadi



I ERANSKINA: ORTOARGAZKIAK / ANEXO I: ORTOFOTOS

2017 ortoargazkia. Ortofoto 2017. Euskalgeo

